

## Bilbon, 1996ko ekainaren 28an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua  
Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea  
Knörr, E., idazkaria  
Arana, J.A., diruzaina  
Altuna, P.  
Azkarate, M.  
Charritton, P.  
Davant, J.L.  
Goenaga, P.  
Irigoyen, A.  
Kintana, X.  
Krutwig, F.  
Larre, E.  
Oihartzabal, B.  
Ondarra, P.  
Peillen, Tx.  
Salaburu, P.  
San Martin, J.  
Sarasola, I.  
Satrustegi, J.M.  
Villasante, L.  
Lizundia, J.L., idazkariorde-kudeatzailea  
Zearreta, J.J., ekonomia eragilea

tabaida. I. Sarasola, J.M. Satrustegi, E. Larre, P. Goenaga eta B. Oihartzabal mintzatu dira. Azkenean, bi hitzek izango dute tratamendu bera. Nolanahi ere den, I. Sarasolak adierazi du *deliberamendu* “erabakia” dela euskaraz, eta ez erabakitzeke denbora edo ekintza.

E. Knörrrek *campus* eta *camping* horrela bakarrik idaztea proposatu zuen bere izkribuan; haren ustez, euskaraz ez luke deus ere irabaziko *k-z* idatziz gero. Gainera, zenbaiten errazkeria aipatu du, uste baitute euskaratzea *b*, *k*, *tx* eta *z* letrak ipintzea dela. *Corpus* hitza ere atera da solasera. X. Kintanak eta J.M. Satrustegik *campus* eta *corpus* horrela idaztea proposatu dute, *c* letra hasieran. P. Ondarrak *camping* hitza ere modu berean idatz dadin eskatu du. P. Charrittonek *curriculum* hitza gehitu du. I. Sarasolak epeak errespetatzea arren eskatu du.

Bozketa egin da, eta *camping* nahiz *kanpin* idatziko dela erabaki da gehiengoz. Aldiz, ez da zilegi izangokanpus eta *korpus* idazkera; horrela erabaki da gehiengoz (15 alde, 5 aurka).

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan, 1996ko ekainaren 31ean, goizeko hamarretan, bildu da Euskaltzaindia. Aldamenean aipatzen diren kideak etorri dira. X. Diharcekek bere ezin etorria adierazi du.

### Agiriak

Maiatzeko bi agiriak onartu dira.

### Hizkuntz Arauak

*Camping-diametro* hitz saila aztertu da egungo batzarrean. Oharrak E. Larre, J. Haritschelhar eta E. Knörrrek bidali dituzte. M. Azkaratek egin du azalpena, batzordearen izenean, P. Salaburu geroago etorri baita. Besteak beste direla, *deblauki* formari eutsi zaio, literatur tradizioan duen pisua-gatik. *Defuntu* hitzaren gainean luzaz mintzatu ondoren, bozketa honako hau ezartzea erabaki da: “*Defuntu*. Hobe *hil*, *zendu*, *zen*. *Gure hilak*; *gure ama zena*”. *Delibero* / *deliberamendu* bi koteaz ere izan da ez-

*Defendatu / defenditu* auzia, batzordeak eztabaidarako utzi duena, izan da orobat mintzagai zenbait minututan. Azkaratek *Orotariko Euskal Hiztegia*-n ageri diren datuak laburbildu ditu, eta *defendatu* formaren alde hitz egin du. Bide beretik zetorren E. Knörren oharra, *defenditu* gaitzetsi gabe. P. Charritonek esan du *defendatu* ez dela deus Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan. P. Altunaren iritziz, arruntak ez diren baina hoberenak omen diren formekin kontuz ibili behar da. E. Knörrek esan du 25 urte honetan hedatu diren hainbat hitz eta aldaerari ezin dakiekeela muzin egin. Azkenean, biak ontzat hartzea erabaki da, baina *defenditu* “lagunartekoa” markarekin.

*Desertu* hitzaren kategoriaz batzordeak dituen zalantzak agertu ditu M. Azkarate andreak. Zerrendan dagoen bezala utziko da, hots, “Lit. Hobe *basamortu*”.

*Deun* sarreran markaren bat ezartzea eskatu zuen E. Knörrek bere oharretan, haren ustez ez baitu hitz horrek *santu / saildu* eta *done / dona* bikoteen mailarik. *Santu* edo *saindu* hobesten direla agertuko da, eta *deun* erabiltzekotan izen bat ondoan erabiliko dela esango da halaber. I. Sarasolak aditzera eman *dusaindu / santu-z* Hiztegi Batuko batzordeak erabaki proposamen bat ekartzeko asmoa duela. X. Kintanak eta E. Knörrek eskatu dute *done* eta *dona* ez daitezen bazter, euskal ondarearenak baitira. Hurrengo zerrendan aztertuko da arazoa.

*Derrigor* eta *dezente* sarreretan “lagunartekoa” ezarriko da, E. Knörrek eskatu bezala.

### Santutegiko izen ohikoenak

Santutegiko izen ohikoenak (*Adam-Henriketa*) onartu dira berebat egungo batzarraren. Zerrendari buruzko oharra J. Haritschelharrek, P. Charritonek eta E. Larrek egin dituzte epe barruan.

Gaian sartu baino lehen, J.M. Satrustegik bere harridura agertu du, zeren hasieran Onomastika batzordeak bi izendegi atera nahi baitzituen (Europako tradiziokoak, bata, eta euskaldunak, bestea). Asmo hori aldatu zen gero, eta zerrenda osoa, a-tik z-ra, plazaratu behar zuela esan zuen batzordeburuak. Hori zela eta, berak gutun bat idatzi zion Euskaltzaindiaren Zuzendaritzari eta honek erantzun, edozeinek, euskaltzain izan edo ez, nahi duen liburua argitaratzeko eskubidea zuela.

J. Haritschelharrek iradokirik, *Betiri* ez da agertuko irizpideetan, hipokoristikoa ez izaki; *Aines* onartu da, *Ines*-en ordain, eta *Murtuts Fruktuoso*-ren pare. Aldiz, *Gehexan* hipokoristikoan zerrendarako utzi da.

P. Charrittonenen ohar batzuk kontuan hartu dira, hala nola *Bernat*, *Bernart*-en kaltean: bozketaren emaitza 11-6 izan da. *Francine* kendu da frantsesezko zerrendatik, eta *Frantzisko*-ren ondoan *Frantses* ere agertuko da, bere oharraz hornitua. J. Haritschelharrek bezala, *Aines* eta *Murtuts* jasotzea eskatu zuen Charritton jaunak. Berak eta E. Larrek proposatu *Xerbatxo*, berriz, ez da zerrenda honetarako ontzat eman. Azkenik, *Grazia* bakarrik agertuko da, ez *Garazi* (honek bere tokia izango du dagokion zerrendan).

E. Larreren zenbait ohar ere onetsi ditu osoko batzarrak, *Agustin*, adibidez, ez *Au-*, eta *Bixente* sartzea.

Gainerakoan, *Bladi* eta *Blas* maila berean agertuko direla erabaki da, eta *Domiku* hurrengo zerrendarako, hots, pertsona izendegirako, uztea.

### 1997ko aurrekontuaren aurkezpena

Jean Haritschelharren hasierako hitz batzuen ondoan, J.A. Arana diruzainak, J.J. Zearreta lagun duela, Euskaltzaindiaren 1997ko aurrekontua aurkeztu du. Aurrekontu arrunta 220.994.881 pezetakoa da, eta batzorde eta egitasmoena 174.437.480 pezetakoa. Lehen partean “Aurrekontu araua” dator, eta azkenean batzorde bakoitzaren 1997ko eginkizunak.

Egin diren galderei erantzun diete J.A. Arana eta J.J. Zearretak batzarrean. Euskaltzainek uztailaren 10era arte bidali ahalko dituzte beren oharrak eta hileko batzarrean behin-betiko testua erabakiko da.

### Eskuartekoak

M. Carmen Garmendia Eusko Jaurilaritzako Kultura sailburuaren gutuna irakurri da, Euskararen Aholku Batzorderako Euskaltzaindiaren ordezkariak eskatuz, bata batzorde orokorrerako eta bestea Toponimia atalerako. Dekretuaren hari nagusiak eman dira.

Euskaltzainburuak bi kargu horiek hornitzeko Zuzendaritzaren proposamena onartu da aho batez. J. Haritschelhar euskaltzainburua izango da Euskararen Aholku Batzordean Euskaltzaindiaren ordezkaria, eta E. Knörr Onomastika batzordeburua Toponimia atalean.

### Azken ordukoak

José Javier Urangak Iruñeko *Diario de Navarra* egunkarian azken hilabeteotan idatzi duenaz Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak, Jagon saila, Onomastika batzordea eta Nafarroako ordezkariak entzun ondoren, prestatu duen adierazpena karpetan sartu da. Adierazpena iragarki ordaindu gisa joango da datorren astean.

Batzarraren ondoren, Euskaltzaindiak Bilbao Bizkaia Kutxaren laguntzaz urteoro antolatzen dituen literatura lehiaketaren iragarpena egin da beheko aretoan, orobat iaz saritutako liburuen aurkeztea. BBKren izenean Jon Manzisidor izan da mahaian.

Eta beste gairik ez zela, bukatu da batzarra.

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

Endrike Knörr,  
idazkaria